

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroa

2009ko ekainaren 18an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean.

18:30etik 20:15era.



Gaia: Legazpin klima-aldaketaren aurka egiteko plana.

● Tailerraren eta parte hartu dutenen aurkezpena

Uda atarian, udaletxeko batzar aretoan bildu gara **klima-aldaketaren aurka egiteko hartu dugun konpromisoa betetzeko**. Gaur bero egiten du eta kalean haur eta gaztetxoak oilar jokoan daude,... baina gu hor egon gara gaiaren gainean dugun interesa agertuz.

Horregatik, **eskerrik asko!** gaurkoan ere, zuen konpromisoa eta parte-hartzea adierazi duzuen guztiei. Ereduz zarete!

Floren Gutiérrez ♦ Miriam Orozko ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Manuel Fernandez (Buztintegi) ♦ Eugenio Gil ♦ Maite Lazaro ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Rafael Gómez ♦ Junkal Fernández ♦ Javier Iraeta ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Koldobike Olabide (legazpiarra "Mirandaola Servicios Ambientales" enpresakoa) ♦ Josu Martínez (Factor CO₂ enpresakoa) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, S.C.).

● ¡Contenidos! El tema tratado, en detalle

En el taller hemos querido alcanzar varios objetivos sobre un mismo tema. De forma resumida, hemos pretendido:

- 1.** Lehenbizi, Legazpiko Udala klima-aldaketaren aurka egiteko lantzen ari den Planaren oinarriak eta edukia ezagutzea.
- 2.** Klima-aldaketaren aurka denok egin dezakegu zerbait, baita legazpiarrok ere; beraz, Udalak bultzatu dituen neurriei buruz hausnartuko dugu (denok egin dezakegu eta egin behar dugu zerbait).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Ikus dezagun nora iritsi garen!

1. Legazpiko Udalaren plana, klima-aldaketaren aurka egiteko.

Inma Hernandez teknikariak gaia kokatzen lagundu digu. Legazpiko Udalak Agenda 21eko III. Ekintza-plana onartu zuen iaz eta plan horretako ardatz bat klima-aldaketa da. Beraz, plan horretan hainbat neurri jaso dira gertakari horren aurka biziki borrokatzeko.

Hala ere, aurten Ihobek proposamen berri bat egin zien Udalei: klima-aldaketaren aurka egingo duen udal mailako plan bat egitea. Udalak proposamen hori interesgarria zela eta lortutako emaitzak III. Ekintza-planean txertatzea komenigarria izango zela erabaki zuen (modu horretan ez ditugu erremintak bikoiztuko); eta horretan aritu dira azkeneko hilabeteotan Factor CO₂ enpresako ordezkariak (gai horretan aitzindari diren beste Udalekin batera: Balmaseda, Durango, Amurrio, Tolosa, Areatza,...).

Zehazki Factor CO₂ enpresako taldeak Legazpin airera isurtzen diren berotegi-efektuko gasen inbentarioa egin du, ondoren horien isurketa murrizteko hartu beharreko neurriak identifikatu ahal izateko; hori eginez gero, Legazpi berotze globalari egiten dion "ekarpen" negatiboa gutxitu ahal izango dugu.



1. a. Funtsezko hainbat kontzeptu

Klima-aldaketa, berotegi-efektuko gasen isurketa,... zertaz ari gara? Josu Martinez jaunak Legazpiko Udalarekin eta Udalarako egin duten Planaren azalpena egin du eta, hasteko, funtsezko hainbat kontzeptu argitu ditu. Hauek dira kontzeptu garrantzitsuenak:

Berotze globala eta klima-aldaketa¹

Eguzkiaren energiak Lurra berotzen du eta, tenperaturak gora egin ahala, beroa atmosferara hedatzen da infragorritzko energia gisa. Atmosferak bero horren zati bat xurgatzen du "berotegi-efektuko gasen" eraginez.

Atmosfera, beraz, berotegiko paretak izango litzateke; horrela, argia pasatzen uzten du eta irteten duen infragorritzko energia xurgatzen du eta, modu horretan, beroa mantentzen da barruan. Prozesu natural hori "berotegi-efektua" izenarekin ezagutzen dugu. Izan ere, berotegi-efektu hori emango ez balitz, Lurraren batez besteko tenperatura 18 gradu 0 azpitik izango litzateke eta, aldiz, egungo batez besteko tenperatura 15 gradukoa da.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Dena den, gizakiaren jarduerak berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzte atmosferara. Horietatik garrantzitsuenak karbono dioxidoa, metanoa eta oxido nitrosoa dira; horiek guztiek berotegi-efektu naturala areagotu egiten dute eta gure planeta berotzen dute. Berotze artifizial osagarri horrek izena du: berotegi-efektu "areagotua".

Iturria: Europako Batzordea - Ingurumena

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Fuente: UNEP -GRID-Arendal.

Berotegi-efektuko gasak: Zeintzuk dira?

Berotze globala eta klima-aldaketa CO₂ edo karbono dioxidoarekin lotzen dugun arren, badaude berotegi-efektua sortzen dituzten bestelako gasak. Izan ere, karbono dioxidoa da gehien isurtzen den gasa baina, aldiz, gutxien berotzen duena da. Beraz, SF₆ edo HFC bezalako gasek arreta berezia merezi dute, gutxi isurtzen badira ere, berotzeko ahalmen handiagoa dutelako.

GAS DE EFECTO INVERNADERO		POTENCIAL DE CALENTAMIENTO (GWP)	
Dióxido de carbono		CO ₂	1
Metano		CH ₄	25
Óxido nitroso		N ₂ O	298
Gases fluorados	Perfluorocarbonos	PFC	7.390 - 12.200
	Hidrofluorocarbonos	HFC	124 - 14.800
	Hexafluoruro de azufre	SF ₆	22.800

1. b. Legazpin isurtzen diren gasen inbentarioa


Zein da Legazpin airera isurtzen den berotegi-efektuko gas-kantitatea? Zeintzuk dira isurketa horiek sortzen duten iturri nagusienak?

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Laburtuz:

- Batez beste, legazpiar bakoitzak urtero **karbono dioxidoaren 3,56 tona** isurtzen ditu. Beste euskal udalerriek isurtzen dutena baino gutxiago da baina, hala ere, kantitate hori murrizten saiatu behar dugu.
- Industria da berotegi-efektuko gasak isurtzen duen iturri nagusia; ondoren datoz, garraioa, etxebizitzak eta zerbitzuak.



- Industria alde batera utziz (udalak mugatuta duelako bertan eragiteko ahalmena), garraioa da gasak isurtzen dituen iturri nagusia eta ondoren etorriko lirateke etxebizitzak, hondakin-zaborteak eta zerbitzuen sektorea.
- Udaletxea bakarrik aztertuz gero, udal-eraikinak dira gas gehien isurtzen dutenak (batik bat berogailu-sistemek eraginda); ondoren herriko argiek isurtzen dituzten gasak daude eta baita udal-ibilgailuek isurtzen dituztenak ere.

1. c. Legazpin klima-aldaketaren aurka egiteko planean proposatu diren neurriak.

Egoera horren aurrean eta inbentarioko emaitzak ikusirik, zein neurri har ditzake Legazpiko Udalak? Factor CO₂ enpresako taldeak, Udalarekin elkar lanean, 16 neurri proposatu ditu; ondoren, Foroak berak neurri horiek Ingurumenaren Ekintza-planean sartzea komeni dela erabaki du. Horrela, klima-aldaketaren aurka egiteko hasieran hartu dugun konpromisoa osatzen eta aberasten dugu!

Hauek dira jarduketak, arloka zatituta:

Klima-aldaketaren aurka egiteko jarduketa berriak, Legazpiko Ingurumenaren III. Ekintza-planean sartzen direnak
Eredugarriak eta zeharkakoak
1. Isurketen inbentarioaren emaitzen berri emateko kanpaina.
2. Aurreikusitako ekipamenduen eta kontsumo-joeren arabera, udal administrazioak isur dezakeena jaso.
Energia (bizitegietakoa)
3. Etxebizitzetan kondentsazio-galdararen erabilerari eta kostu eta eraginkortasunari buruzko informazioa eskaini.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

4. Igogailuetan maiztasun-erregulagailuen erabilera sustatu eta gai hori igogailuen gaineko ordenantzan sartu.

Energia (zerbitzuak)

5. Udal eraikinetan energia-eraginkortasunaren azterketak egin. Ondorioz, gehien kontsumitzen duten eraikinak identifikatu, energiaren auditoria egiteko egutegia proposatu eta, departamentu kudeatzaile bakoitzaren arabera, proposatutako neurriak Ekintza-planean sartu, auditorian bertan proposatutako kronograma jarraituz.

6. Udalak burutuko dituen ekintza eredugarrien berri herritarrei eman: energia-eraginkortasuna ekipo desberdinak erostean (fotokopiagailuak, lanparak,...), kontsumo txikiko lanparak, lanpara fluoreszenteetan balasto elektronikoak jarri,

Energia (industria)

7. Herriko enpresei energiaren gaineko auditoriak egiteko egon daitezkeen finantza-bideen berri eman.

8. Eskualde mailan zabaltzeko, informazio-paketea egin eta zabaldu ondoko gaietarako buruz:

- Etxeko ur berorako kondentsazio-galdaren erabilera herriko industrietan.
- Enpresetan eguzki-plaka termikoak eta fotovoltaiakoak erabili: panel fotovoltaiakoak jartzeko obrei dagozkien tasetan murrizketa osagarriak egiteko aukera aztertu.
- Lantegietan aire konprimitua.
- Energia-ziurtagiria (UNE 216301).
- Karga osoarekin lan egiten ez duten motorretan maiztasun-erregulagailuak jarri.
- Teilatu berdeak.

Garraioa

9. Ordukako alokairuetan, "car-sharing" izeneko modalitatea ezartzeko aukera aztertu.

10. Jende asko dabilen tokietan bizikletak aparkatzeko lekuak egokitu (Osasun-zentroan, institutuan, plazan, merkataritza-guneetan, ...)

11. "Bizikletaren erabilera sustatzeko Plana" ikastetxeetan zentratu; bizikletan segurtasuna sustatu (adibidez, txirrinak oparitzuz, kaskoak, bizikletarentzako argiak, zinta distiratzailak).

Hondakinak

12. Haurtzaindegietan pixoihal berrerabilgarriak erabiltzeko proposamena egin Eusko Jaurlaritzari.

13. Garaian garaiko produktu galkorrak eta ontziratutako gabeak kontsumitzearen aldeko kanpaina.

Egokitzea eta isurbideak

14. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatu, salmentarako doako gunek utziz.

15. Urez betetzeko arriskuan dauden eremu urbanizatuak babesteko ekintzak aztertu. Horretarako kontuan hartuko da Eusko Jaurlaritzak egin duen zonalde-banaketa eta arreta berezia eskainiko zaie Elorregi eta Plazaola eremuei.

16. Ibaiertzeko landareak zaintzeko eta mantentzeko plana egiteko helburuarekin elkarlanean aritzeko protokoloa egin Eusko Jaurlaritzarekin.

Horrezaz gain, gaurko foroan parte hartu dutenek honako ekarpena egin dute: gaur hemen geure buruari ezarri diogun erronkan lantegiek ere zer esan eta zer egin izan dezaten, enpresa ezberdinekin eta elkarte sindikalekin lan egin beharra.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

2. Klima-aldaketaren aurka egitean, nola egin ditzakegu herritarrok parte-hartzaile? Hainbat neurri.

Horixe izan da erantzuten saiatu garen bigarren galdera. Izan ere, egokia da Udalak klima-aldaketaren aurka egiteko neurriak hartzea eta lan hori bultzatzea; ondo dago, herriko lantegiak ere ildo beretik joan daitezela bilatzea; baina guk, herritarrok, zer egin dezakegu? Gu ere hainbat gas-isurketen erantzule gara: etxean, batetik bestera goazenean, erosketak egitean,....!

Horregatik, gai hau gizarteari nola azaldu eta herritarren parte-hartzea nola lor dezakegun aztertu dugu taldean. Hona hemen emaitza:



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiarrek ere klima-aldaketaren aurka asko egin dezaketela azaltzeko ekintzak

- **Bizilagunen komunitateei zuzendutako informazio-kanpaina bat egin daiteke eta** galdarak aldatzeko, energia berriztagarriak jartzeko,... dauden aukeren, laguntzen edo diru-laguntzen berri eman daiteke. Hau da, berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketa murrizteko neurriak azal ditzakegu.
- **Stop Euskadi ekimena.** Koldobikek ongi adierazi digunez, Stop Euskadi izeneko ekimena Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan klima-aldaketaren aurka egiteko martxan jarri den lehenengo ekimena da. Aipatu ekimenean herritarrek, enpresek eta herri-administrazioek buru ditzaketan ekintzak jasotzen dira. Ekimen irekia eta borondatezkoa da eta bertan, sarbidea dute euskal gizarteko kide guztiek berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko har ditzaketan konpromiso guztiak. Beraz, edozein herritarrek, enpresak edo erakundek har dezake ekimenean parte, eta oso erraza da gainera! Honako Web orrian sar zaitezke...: www.stopco2euskadi.net/
- **Udal mailan barruko "informazio-protokoloa"** sortzea; horrela, norbaitek hirigintza sailean obra-baimena eskatzen duenean, klima-aldaketaren aurka egiteko har daitezkeen neurrien berri emango zaio.
- **Hondakinak atez ate jasotzeko aukera** aztertzea (abantailak, zailtasunak,...). Neurri horren helburua zabortegira iristen den zabor-kantitatea murriztea da eta, ondorioz, gas metano gutxiago sortzea. Lan horretan, Usurbilgo ereduari oinarri gaitzke.

Badakigu gaiak denbora gehiago eskatzen duela eta taldeak gaia sakontzen jarrai zezakeen baina dagoeneko, 20 minutu gehitu dizkiogu bilerarako ezarritako ordu-tarteari eta bukatzeko ordua iritsi da!

● **Eta honekin agur esaten dugu uda igaro arte!**

Gaur azertu dugun gaia oso interesgarria eta azertu beharrekoa iruditu zaigu eta gaia sakontzen jarraitzeko konpromisoa hartu dugu. Baina hori uda ondoren izango da. Foroak ondo irabazita ditu opor-egunak. Beraz, ongi ibil zaitezte eta gure paisaiak eta jende alaiak goza ditzazuela. Oporretatik bueltan ikusiko dugu elkar!

Eskerrik asko!